

PRESTAKUNTZA

GIZONDUZ EKIMENA

Sentsibilizazio
eta prestakuntza
programa

2016



www.euskadi.eus/gizonduz



AURKEZPENA

1. Sarrera

2. Alde orokorrak

3. Banakako Prestakuntza Moduluak

3.1. Aurrez aurrekoak

3.1.1. Hastapeneko prestakuntza modulu programatuak

3.1.2. Prestakuntza modulu trinko programatua

3.2. Online

Prestakuntza-eskaintza

4. Talde eta kolektiboentzako prestakuntza moduluak

4.1. Aurrez aurrekoak

4.1.1. Hastapeneko modulua

4.1.2. Sakontze moduluak

4.1.3. Sexismoaren aurkako prestakuntza tailerra:
Txutxumutxurik ez!

4.1.4. Prestatzaileen prestakuntzaren beharra

4.2. Modulu mistoak kolektibo eta taldeentzat



1. SARRERA

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindaria da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, eta helburu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gizonak kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu eta parte hartu dezaten sustatzea.

Gizonduz sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa hasi zenetik (2009ko martxotik) 2015era arte, 10.000 pertsona inguruk –erdia baino gehiago gizonak– parte hartu dute Gizonduzen ikastaroetan, eta horien gogobetetasun-maila oso handia da.

Gizonduzek, prestakuntzaren bidez, helburu hauek lortu nahi ditu:

- Genero-teoria, horrek gure gizartean dakarren egiturazko banaketa eta haren ondorioak ulertzea eta horien kontzientzia izatea, emakume eta gizonen artean desberdintasunak zergatik dauden eta esleitutako rolen diferentziazioak eta hierarkizazioak zeri erantzuten dioten ulertzeko.
- Mugimendu feministaren historia eta borrokaren gaineko ezagutza eta aintzatespena sustatzea, maskulinitate hegemonikoaren dekonstrukzioan esku hartzeko esparru teoriko gisa.
- Taldean eta indibidualki, gizonak gaur egungo sisteman duten sozializazio-prozesua ezagutzera ematea eta identifikatzea, gure gizarteko gizonaen erreferente nagusien berrikuspen kritikoa egitea eta aldatetarako eta eraldaketarako beste erreferente batzuk indartzea.

- Egitura matxista horren ondoriozko ideia, pentsamendu, jarra eta jokabideetarako beste aukera batzuk identifikatzeko bide ematea, bai eta egitura horren ondorioek norberarengan eta taldearengan duten garrantzia ebaluatzea ere.
- Berdintasunaren alde gizonen lanean dauden antolaketa-esperientziak ezagutzera ematea eta horiek hurbiletik ezagutzea, «jarduneko ikaskuntza»rako erreferentzia-eredu gisa.



2. ALDE OROKORRAK

Gizonduzen sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak bi prestakuntza-modalitate ditu: **banakakoa** eta **taldekoa eta kolektiboetakoa**.

Beren beregi gizonentzako ikastaroak dira, banaka zein taldean, emakumeen eta gizonen berdintasuna zer den eta arlo pertsonalean, sozialean eta profesionalean berdintasunaren alde zer egin dezaketen jakin nahi dutenentzat, horri buruzko prestakuntza jaso edo horretan sakondu nahi dutenentzat. Hori guztia, emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko aldaketa soziala sustatuko duten eragile izan daitezten.

Programa honetan publiko lehenetsia ez bada ere, emakumeek ere parte har dezakete, maskulinitate hegemonikoko prozesuek guztiongan baitu eragina, jaiotzerakoan esleitutako sexua eta generoa alde batera utzita. Nolanahi ere, emakume parte-hartzaileen kopurua pertsona guztien % 30etik gorakoa ez izateko ahallegina egingo da.

Gizonduz programaren prestakuntza osoa doakoa da, eta aurrez aurrekoa, onlinekoa eta mistoa izan daiteke.

Aurrez aurreko prestakuntza-taldeak, gutxienez, 15 parte-hartzaile izango ditu, eta, gehienez, 25; baina eskakizun horiek alda daitezke, kasu bakoitzeko egoera zehaztutara egokitzeko.

Prestakuntza-moduluak euskaraz edo gaztelaniaz eman ahalko dira, eskaria zein den ikusita.



3. BANAKAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

3.1. AURREZ AURREKOAK

Norbanakoei zuzendutako moduluak dira; hainbat gai lantzen dira horietan.

Hastapeneko hiru prestakuntza-modulu antolatuko dira Gasteizen, Bilbon eta Donostian, lau ordukoak, gehi hogeit hamar orduko ikastaro trinko bat Bilbon.

3.1.1. Hastapeneko prestakuntza modulu programatuak

Gaiak eta edukiak

Hiru moduluetan, edukia antzekoa izango da eta gai hauek landuko dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak. Maskulinitate tradizionalen edo hegemonikoen sozializazio-prozesuak eta horiek gizonengan duten eragina. Berdintasunerako eta sexu-aniztasunarekiko eta genero-identitatearekiko errespetua erakusteko erresistentzia, helburu hori lortzeko bideak emakumeen ahalduntze-prozesuei esker, balio sozialen aldaketa eta gizonezkoen erreferente eta praktika berriak agertzea.



3. BANAKAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

3.1. AURREZ AURREKOA

3.1.2. Prestakuntza modulu trinko programatua

Gaiak eta edukiak

20 orduko modulu honetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasun sozialen jatorria aztertuko da, bai eta maskulinitate tradizionalen edo hegemonikoen sozializazio-prozesuak, horiek gizonengan duten eragina eta boterea gauzatzearekin duten harremana ere.

Halaber, gizonak ugalketako eta zaintzako lanean inplikatzeko ekartzen dizkion aldaketak eta zailtasunak ere aztertuko dira.

Moduluan emakumeen ahalduntze-prozesuak aztertu eta horietan sakonduko da, bai eta historiaren analisisan eta mugimendu feministen eta berdintasunaren aldeko gizonen taldeen ekarpenetan ere.

Aldi berean, emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria matxistak eta horiek gizarteari zer ondorio dakarzkieten aztertu eta definituko da, eta gatazkak konpontzeko metodologia ez-bortitzak aztertuko dira.

Era berean, gizartean ohikoak diren maitasun-mitoen analisia eta kritika egingo da, eta praktika homofobikoak zehaztuko dira, bai eta hainbat eta hainbat pertsonaren eskubideen aurkako mugak, zapalketak eta urraketak ere, eta sexu-aniztasuna errespetatzeko erresistentziak. Azkenik, gizonen arrisku-praktikak aztertuko dira eremu guztietan, oro har, eta laneko, drogazaletasuneko eta bide-mugikortasuneko eremuan, bereziki.



3. BANAKAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

3.2. ONLINE

Gizonei zuzendutako prestakuntza-modulu honetan, hainbat oinarrizko gai landuko dira, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruan; horretarako, emakume eta gizonen arteko desberdintasunen jatorria aztertuko da, bai eta sozializazio-prozesu maskulinoak ere. Análisi horren barruan, garrantzia berezia ematen zaio gizonen ugalketa- eta zaintza-eginkizunaren azterketari, bai eta gizartean aniztasunean eta emakume eta gizonen berdintasunaren sustapenean oinarritzen diren erreferente berriak eraikitzeko dauden erresistentziei eta aldaketari ere.

8 orduko modulu hau urte osoan zehar egin daiteke, Gizonduzen web orrian: www.euskadi.eus/gizonduz



PRESTKUNTZA-ESKAINTZA

BANAKAKO PRESTAKUNTZA MODULUA

AURREZ AURREKOAK

Hastapeneko prestakuntza modulu programatuak

Vitoria-Gasteiz	maiatzaren 6a	Orduategia: 16:00etatik 20:00etara	Lekua: Manuel Iradier, 36	4 ordu	Izena emateko orria
Bilbao	maiatzaren 13a	Orduategia: 16:00etatik 20:00etara	Lekua: Gran Vía, 85	4 ordu	Izena emateko orria
Donostia/ San Sebastián	maiatzaren 20a	Orduategia: 16:00etatik 20:00etara	Lekua: Andía, 13	4 ordu	Izena emateko orria

Prestakuntza modulu trinko programatua

Bilbao	Urriaren 14, 15, 21 eta 22a	Orduategia: ostiraletan 15:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara	Lekua: Kale Nagusia, 85 zk.	20 ordu	Izena emateko orria
--------	--------------------------------	---	-----------------------------	---------	---------------------

ONLINE

Internet bidezko prestakuntza modulua

Gizonduz-en web-gunea: www.euskadi.eus/gizonduz	Urte guztian zehar	8 ordu	Sartu hemen
---	--------------------	--------	-------------

4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.1. AURREZ AURREKOAK

Modulu hauek erakunde, kolektibo, sindikatu, enpresa, GKE edo bestelako erakunde-moten eskariaren arabera egiten dira.

Kolektibo berezien partaide diren gizonengan eragina izatea da helburua: sindikatuko ordezkariak, ordezkari politikoak, auzo-elkarteetako eta/edo, besteak beste, gizarte- edo zuzendaritza-kolektiboetako presidentek... beren ingurunean berdintasunezko erreferentzia-eredu bilakatzeko.

Prestakuntza kolektibo profesionalei eta erakundeei ere zuzenduta dago: irakasleak, funtzionarioak, langile politikoak, sindikatuetako edo GKEetako osagaiak... kontuan hartuta balioen aldaketa sustatzeko daukaten interesa. Horrela, programak prestakuntza bera zuzenean jaso ez duten pertsonengan ere eragina izatea lortu nahi da.

Prestakuntza-modulu hauen bidez, hainbat gai landu nahi dira, eta iraupena, gutxienez, lau ordukoa izango da.

Prestakuntza-modulu hauek egiteko eskaera: Gizonduzen web orriaren bidez -www.euskadi.eus/gizonduz- edo helbidearen bidez: emakunde.gizonduz@euskadi.eus.

Aurrez aurreko prestakuntza-moduluak talde eta kolektiboentzat bi motatakoak dira:



4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.1. AURREZ AURREKOAK

4.1.1. Hastapeneko modulua

Hastapeneko modulu bakoitzak gai berezi batzuk ditu, eta 4 ordu irauten du. Moduluetan landuko diren gaiak hiru ardatzetan egituratzen dira:

- Maskulinitateak, berdintasuna eta balioak aldatzea.
- Maskulinitateak eta indarkeria sexista.
- Maskulinitateak eta arriskuen murrizketa.

Ardatz bakoitzaren barruan, hainbat gai eskaintzen da.



4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.1. AURREZ AURREKOAK

4.1.2. Sakontze moduluak

Hauen iraupena beharren eta eskari zehatzen arabera alda daiteke.

Gaiak dagokionez, bi sakontze-modulutako aukera eskaintzen da:

- Zenbait gai konbinatzea modulu bakar batean. Ikastaro horien gaiak eta iraupena eskari zehatzen eta helburu den publikoaren espezifikotasunen arabera zehaztuko dira.
- Hastapen-modulu batean sakontzea. Kontua da gai zehatz batean egitea aurrera eta, horretarako, horren edukia lantzen denbora gehiago ematea, parte-hartzaileentzako erabilgarritasuna areagotzeko.

Prestakuntza-modulu guztietan egongo da oinarri teoriko komuna, eta bertan aztertuko dira matxismoaren kausak eta ondorioak, bai eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunenak ere, gizonezkoen identitateen sozializazioa eta haren ondorioak, eta erreferente positiboen ezagutza eta sustapena, emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko. Eduki osagarriak gehitu ahalko dira, behar zehatzen arabera eta kolektibo zehatz bakoitzarekin landu beharreko helburuak oinarri hartuta.

Gaiak eta edukiak

A) MASKULINITATEAK, BERDINTASUNA ETA BALIOAK ALDATZEA

Berdintasuna eta maskulinitateak.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak aztertuko dira. Maskulinitate tradizionalen edo hegemonikoen sozializazio-prozesuak eta horiek gizonengan duten eragina. Berdintasunerako eta sexu-aniztasunarekiko errespeturako erresistentziak identifikatzea eta helburu hori lortzeko bideak ezagutzea, emakumeen ahalduntze-prozesuei esker, balio sozialen aldaketa eta gizonezkoen erreferente eta praktika berriak agertzea.

Gizonak, maitasuna eta berdintasun-erlazioak.

Gizartean ohikoak diren maitasun-mitoen analisia eta kritika egingo da. Sexu- eta afektu-harremanak nola sortzen diren, emakume eta gizonen arteko desberdintasuna errealitate egiaztagarria den testuinguruan; horretarako, gizonezkoen eta emakumezkoen identitateetako balio eta sozializazio-modelo aldaketak aztertuko dira. Maitasun erromantikoaren tradizioak gizonak non kokatzen dituen eta nola eraiki daitezkeen amodiozko beste harreman positibo, anitz eta berdinen arteko batzuk.

4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

Aitatasun arduratsuak eta berdintasunezkoak.

Ugalketa- eta zaintza-lanaren kontzeptua berriro definitzeko beharra aztertuko da. Horretarako, analisi kritikotik aztertzen dira aitatasun arduratsuan gertatzen ari diren aldaketak eta erresistentziak. Gurasotasun positiboaren praktikak eta erreferente berriak aztertuko dira; horretarako, modu anitzak eta pluralak sustatuko dira, ugalketa- eta zaintza-lanaren berdintasunezko etika eraikitzeko.

Maskulinitateak, gazteria eta berdintasuna.

Gizonezkoen identitateak gaztaroan sozializatzeko dituzten prozesuak aztertuko dira, bai eta gertatzen ari diren aldaketak eta maskulinitate-eredu tradizionalari nola eusten zaion ere, kontuan hartuta horrek eusten diela emakume eta gizonen arteko desberdintasun-egoerei. Halaber, gazteei zuzendutako lan-estrategiak aztertu eta partekatuko dira, gaur egungo praktika sexistetan aldaketa susta dezaten eta sexismorik gabeko gizartearen aldeko erreferente positiboak indar ditzaten.

Maskulinitatea eta emakumeen ahalduntze-prozesuak?

Emakumeen ahalduntze-prozesuak aztertzea eta horietan sakontzea du helburu nagusi, prozesuak eurak sustatzeko, eta, horretarako, espazio publiko, ekonomiko eta pribatuetan dauden gizonezkoen erresistentziak adierazi eta ezagutuko dira. Emakume eta gizonen arteko berdintasunezko harremanak posible izateko

balioak aldatuko dituzten praktikak eta ideiak aztertu eta partekatuko dira.

Gizonak komunikabideetan.

Modulu honetan, batik bat, maskulinitate tradizionalaren sozializazioak komunikabideetan egiten den gizonen irudikapenean duen garrantzia aztertzea izango da helburu. Bai eta komunikabide horien garrantzia adieraztea ere, berdintasunaren aldeko mezua sortzeko; horretarako, mezua ekoiztean eta emakumeak eta gizonak berdintasun-baldintzetan adieraztean eta ikusaraztean dauden erresistentziak eta aldaketak aztertuko ditu.

Maskulinitateak, generoa eta giza eskubideak.

Giza eskubideen gaineko formulazioei buruzko ikuspuntu kritikoa landu nahi da, genero-ikuspegitik. Indarkeriak gizonezkoen identitateak eraikitzean gatazkak konpontzeko bide gisa duen garrantzia aztertuko da, bai eta giza eskubideen aplikazioan eta urraketan duen eragina ere. Emakume eta gizonen arteko desberdintasunean gizartearen ikuspegi androzentrikoak duen garrantzia nabarmenduko da, eta ikuspuntu sexista horrek gizarteari oro har berdintasuna eta giza eskubideenganako errespetua lortzeko dakarzkion zailtasunak adieraziko dira.

4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

Maskulinitateak eta berdintasuna garapenerako lankidetzaren estrategietan.

Giza garapenaren sustatzaile gisa maskulinitateen aldaketa abiapuntu hartuta, maskulinitate tradizionalen sozializazioak lankidetzapolitikak berdintasunezkoak izateko dakartzan zailtasunak aztertuko dira. Gainera, garapenerako lankidetzapolitikak eta gizonetik lanean positiboak diren praktikak ere nabarmentzen dira, genero-ikuspegitik lankidetzapolitika bidezkoak eta zuzenak lortzeko hobekuntzak eta aurrerapausoak dakartzatenak.

Maskulinitateak, berdintasuna eta kirol praktika.

Kirola maskulinitatearen eraikuntza sozialaren erreferente garrantzitsu gisa aztertuko da, bai eta aldaketa-ereduen eraldaketan duen garrantzia ere. Maskulinitate tradizionalari lotutako garapen- eta arrakasta-ereduen garrantzia azpimarratuko da, eta emakumeak eta gizonak berdintasunean jartzen dituzten kirol praktikak ikusarazi eta nabarmenduko dira. Aldi berean, erreferente eta balio berrien eraikuntzan aldaketak eta erresistentziak aztertuko dira, emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritzen diren kirol praktikari lagunduko diotenak.

B) MASKULINITATEA ETA INDARKERIA MATXISTA

Maskulinitateak eta laneko sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren prebentzioa.

Laneko sexu-jazarpenaren eta jazarpen sexistaren definizioa aztertuko da, eta horiek testuinguru sexistekin lan-eremuetan duten harremana, jazarpenaren prebentzio-praktikak garatzeko, gizonetik bereziki zuzenduta, bai eta oro har lan-antolamenduak ezarri eta mantentzen dituztenei ere. Era berean, sexu-jazarpen eta jazarpen sexista prebenitzeko protokoloak egiteko prozesuen azterketa eta analisia landuko da, indarkeria sexistaren salaketa eta berdintasuna sustatzen duten lan-praktiken ezagutza eta sustapena oinarri hartuta.

Maskulinitateak eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa.

Emakumeen aurkako indarkeria sexista definitu eta aztertuko da eta, aldi berean, gizonetikoen eredu tradizionalaren sozializazio-prozesuak zehaztuko dira eta indarkeriaren ikaskuntzarekin duten lotura, gatazkak konpontzeko. Indarkeria sinbolikoaren legitimazio-mekanismoen ezagutzan sakonduko da, maskulinitateen eta boterearen arteko harremanaren eta sexismoaren legitimatzaile gisa; halaber, erakundeetan indarkeria sexistaren aurka jarduteko estrategien azterketan ere sakonduko da. Indarkeria-mota hauek prebenitzeko gizonetik zuzendutako esperientziak ere aztertu eta partekatuko dira, eta gizonetik indarkeria matxistaren aurkako borrokan sartzeko lan-praktikak sustatu eta ezagutuko dira.

4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

Maskulinitateak eta indarkeria matxista.

Abiapuntu gisa gizonezkoen sozializazio-eredu tradizionalen garrantzia hartuko da, indarkeria gatazkak konpontzeko baliozko metodo gisa ikasteko. Indarkeria matxistak eta horiek gizarteari dakarzkieten ondorioak aztertu eta zehaztuko dira. Gatazkak konpontzeko metodologia ez-bortitzak aztertuko dira, eta bote-rearekin duten harremana aztertuko da; horretarako, gizonezko ez-bortitzen erreferente berriak ezagutzea azpimarratuko da, bai eta balio berriak eraikitzeke garrantzia sozializatzailea ere.

Gizonak, berdintasuna eta homofobia.

Homofobia eta gizonezkoen identitate hegemonikoen eraikuntzan oinarri nagusi gisa duen garrantzia aztertuko dira. Ohitua homofobikoak zehaztuko dira, bai eta horiek pertsona askorengan dakartzaten eskubideen mugaketak, zapalketak eta urraketak ere. Prebentzio-praktikak partekatu eta eztabaidatuko dira, gizonei bereziki zuzenduta, eta, horrela, sexu-aniztasunarekiko eta genero-identitateekiko errespetuan oinarritutako gizonezkoen erreferenteak eraikitzeke.

Gazteak, maskulinitateak, teknologia berriak eta berdintasun-harremanak.

Maskulinitateak eraikitzeke prozesuak ezagutu nahi dira gizon gazteengan, bai eta indarkeria sexistek teknologia berrietan duten presentzia ere. Era berean, maskulinitate tradizionalak berdintasunezkoak ez diren bikote-harremanen ugalketarekin duten harremana aztertuko da eta, zehazki, teknologia berrien erabilerekin, kontrol sexistako tresna gisa. Lan-esperientziak partekatu eta aztertuko dira gazteekin, tratatu onak eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna oinarri dituzten harremanak, eta teknologia berriak aztertuko dira, gazteen lanean berdintasunezko diskurtsoen eta praktiken sortzaile gisa.

C) MASKULINITATEAK ETA ARRISKUEN MURRIZKETA

Maskulinitatea eta lan-arriskuen prebentzioa.

Gure gizarteko eta, bereziki, lan-eremuko gizonezkoen eredu tradizionalen sozializazioaren eta gizonen arrisku-praktiken arteko harremana aztertuko da. Gizonek lan-arriskuko egoerak hartzera bultzatzen duten baldintzak identifikatuko dira, bai eta baldintza horiek irizpide eta balio androzentristetan oinarritutako lan-antolaketaekin eta lidergoaren antolaketaekin duten harremana ere. Ondoren, lan-arriskuen prebentziorako programak egiteke modua landuko da, eta, horretarako, lan-ardatz gisa maskulinitateen aldaketa hartuko da, bizitzan eta lan-baldintzetan eragin positiboa sustatzeko.

4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

Maskulinitateak, bide-hezkuntza eta ezbehar-kopuruen prebentzioa.

Bide-mugikortasunarekin lotutako arrisku-praktikak aztertuko dira eta, horretarako, genero-ikuspegitik, gizon eta emakumeen jokabideak aztertuko dira, bai bide-mugikortasunean, bai horrek dakartzan arriskuei aurre egiteko moduan ere. Gizartean, oro har, gizonen arrisku-praktikak aztertuko dira, gizonezkoen eredu tradizionalen sozializazioari lotuta. Halaber, gizoni zuzendutako prebentzio-praktikak partekatu eta aztertuko dira, eta abiapuntu gisa maskulinitatearen adierazpenak hartuko dira.

Maskulinitateak, delitua eta kartzela.

Gizonezkoen identitateek indarkeria matxistekin duten sozializazio-harremana aztertuko da. Kriminalitatearekin duen harremana aztertu eta identifikatuko da, eta gure gizartean egindako delituei buruzko ikuspuntua aztertuko da, genero-ikuspegitik. Era berean, segurtasunaren eta arau sozialaren apurketaren kontzeptuak zehaztuko dira, maskulinitate tradizionalei eta arrisku sozialeko jokabideei dagokienez. Gizoni zuzendutako prebentzio-estrategiak partekatu eta aztertuko dira.

Maskulinitateak eta droga-mendekotasunen prebentzioa.

Droga-mendekotasunekin lotutako arrisku-praktikak aztertuko dira. Gizonek eta emakumeek kontsumitzeko duten moduen arteko harremana aztertuko da, genero-ikuspegitik, bai eta gizonek gizartean, oro har, egiten dituzten arrisku-praktikak ere, gizonezkoen eredu tradizionalekin batera. Halaber, gizoni zuzendutako prebentzio-praktikak partekatu eta aztertuko dira, eta horiek maskulinitatearen adierazpenak eta horiek gizonezkoen zaintzan dituzten ondorioak aztertuko dituzte.



4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.1. AURREZ AURREKOAK

4.1.3. Sexismoaren aurkako prestakuntza tailerra: Txutxumutxurik ez!

Aurrez aurreko prestakuntza-modulu honek tailer-formatua izango du eta beren erakundeetan berdintasunezko praktikak sustatu nahi dituzten erakunde, talde edo kolektiboei zuzenduta dago. Moduluaren helburua da erreferentziazko pertsonak prestatzea, batez ere gizonak, beren esku hartzeko eremuetan, beren izenean edo elkarrearen ordezkartzan, eremu indibidualean, lanekoan edo kolektiboan zurrumurru sexistak gezurtatzen lagundu nahi dutenak.

Gutxi gorabehera hogeit hamar ordu iraungo du tailerrak, eta, bertan, generoari, berdintasunari eta maskulinitateei buruzko prestakuntzako oinarritzako edukiak emango dira, hiru alderditan oinarrituta:

- Estereotipo, aurreiritzi eta zurrumurru sexistak lantzea eta antzematea emakume eta gizonen arteko desberdintasunarekin, hainbat modutan adierazten direnak: ekintza positiboa, salaketa faltsuak, banantze eta zaintza kontuak, feminismoa ulertzeko modua eta identifikatzen diren beste batzuk.
- Talde hartzailearen errealitate pertsonalari, lanekoari eta sozialari buruz hausnartzea, tresna baliagarriak emateko eta, horrela, topikoak desagerrarazteko eta zurrumurru sexista faltsuei aurre egiteko mekanismo egokiak izateko.

- Erakundearen eremuan zurrumurru sexisten aurkako ekintza-prozesua planifikatzea, elkarrekin berdintasunaren aldeko komunikazio-estrategia bereziak egitea eta antzemandako zurrumurru sexista nagusiak desagerraraztea, lan-prozesuari jarraipena egiteko adierazleak diseinatzen diren neurrian.

Zurrumurruren aurkako tailer-taldeek, gutxienez, 10 parte-hartzaile izango dituzte eta, gehienez, 20; baina eskakizun horiek alda daitezke, kasu bakoitzeko egoera zehatzetara egokituzko.



4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.1. AURREZ AURREKOAK

4.1.4. Prestatzaileen prestakuntzaren beharra

Prestakuntza hau emakumeekin edo emakume eta gizonekin lan egiten duten prestatzaileei zuzentzen zaie, bai hezkuntza formalean aritzen direnei, bai bestelako hezkuntza ez formalekoei.

Tailerraren helburu nagusia, prestakuntza lanetan diharduten pertsonei, gizonengan balio eta jarrera aldaketa bultzatzeko beharrezkoak diren ezagutzak, ikasketak eta metodologiak eskaintzea, berauk berdinzaleagoak izan daitezen.

Tailerraren iraupena 18 eta 20 ordu bitartekoa da. Tailerra bukatu eta emaitzak baloratzeko epea pasaturik, ebaluazio saioa egingo da. Moduluka planteatzen da, beronen iraupena tailerreko ikasleen egoera eta modalitate desberdinetara egokituz.

Ikastaro hau, saioetan zehar taldeka eraiki beharreko tresnatzat hartzen da. Honetarako, «ezagutzaren eraikitze kolektiboa»ren teknika proposatzen ari gara, saioen edukia, hartzaileen profilerak eta ezagupen mailara egokituz. Hau guztia **medologia parte-hartzailearen** bidez lortuko da, ezagutzak sortzearen ardatza den neurrian, baita parte-hartzaileek beraiek dituzten berezko interesak eta esperientziak ikastean.

Tailerra hurrengo alderdietan oinarrituko da:

- Genero, maskulinitateak eta berdintasunaren alderdi kontzeptualen gaineko oinarritzko prestakuntza eskaintzea, eta prestatzaileen hezkuntza esku-hartzea genero ikuspegitik aztertzea.
- Trebetasun eta eskumen praktikoak garatzea, proposatzen den ikuspegitik esku-hartze hobea lortzera bideratuak.
- Egunerokotasunean erabiltzeko praktika onak proposatzea eta partekatzea.
- Prestakuntzarako praktika metodologiko onak sortzea eta partekatzea.



4. TALDE ETA KOLEKTIBOENTZAKO PRESTAKUNTZA MODULUAK

4.2. MODULU MISTOAK KOLEKTIBO ETA TALDEENTZAT

Gizonduzek dituen tresnak aprobetxatzeko eta ezartzeko, aurrez aurreko prestakuntza eta onlinekoa konbinatzen dituen prestakuntza-modalitatea proposatzen da, aurrez aurreko moduluetan jarraipen- eta sakontze-lana egiteko eta, horrela, erakundeetan aurrez aurreko prestakuntzarako denbora baliatzeko sarritan izaten diren zailtasunei aurre egiteko.

Ikastaro misto hauek ez dira hamabi orduetik beherakoak izango. Ikastaroetan, ikasleek aurrez aurreko zati bat egingo dute, eta horren iraupena pertsonala eta bakoitzaren beharretara egokituta egongo da (sekula ez lau orduetik beherakoa); zati horrez gainera, onlineko sentsibilizazio-ikastaroa egingo da, zortzi orduko prestakuntzako, horrela, emandako edukietan sakondu ahalko du.

Modulu mistoetako edukiak aurrez aurreko modulu pertsonalizatuetan emango diren berak dira, eta erakunde eskatzaileen beharretara egokituko dira.



IZENA EMATEKO ORRIA 2016

INICIATIVA GIZONDUZ 2016

Ikastaroaren ezaugarriak

Izena

Hasiera data Amaiera data

Lekua

Hizkuntza ofiziala

Ikastaroan parte hartzeko beharizan espezifikoak
(haurtzaindegia, zeinuen mintzaira, e.a.)

.....

.....

Ikastaroan parte hartzeko arrazoiak edo eta beste ohar batzuk

.....

.....

.....

Datu pertsonalak

Izena

Abizenak

Jaiotako urtea

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonoa E-posta

Hona bidali:

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Manuel Iradier, 36

01005 VITORIA-GASTEIZ

Telefonoa: 945 01 67 00

Faxa: 945 01 67 01

Posta elek.: emakunde.gizonduz@euskadi.eus

www.euskadi.eus/gizonduz

Bidali

Gorde

Inprimatu

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan agindutako ondorioetarako, eraginpekoari jakinarazten zaio emandako datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen erantzukizunpean dagoen fitxategi automatizatuan sartuko direla, pertsonen Erregistroa izenekoan. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin harremanak dituzten pertsonak kudeatzea da fitxategiaren helburua; fitxategiko datuen lagapena ez dago aurreikusita. Eraginpean dagoen pertsonak arduradunarengana jo dezake, helbide honetan: Manuel Iradier kalea, 36, 01005 Vitoria-Gasteiz. Datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak indarrik gabe uzteko eta aurka egiteko eskubideez baliatu daiteke.



www.euskadi.eus/gizonduz